"Lan eginak ezdu orkitakorik" [Erronkariko esaera zaharra]

2017ko uda [berezia] 24. zenbaki [berezia]

Bidankozarte

Lege-gordailu: NA 2365-2015

Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

Edukiak

- Onki xin berriz, antiguotarrak! 1
- *Kolonien* aztarna Bidankozen..... ...1
- Horrela hasi zen dena..... 2
- *Koloniak* zenbakitan 2
- Bidankoze izeneko toki mitologiko hori 3
- Txanda batek egun bat gehiago iraun zuenekoa..... 3
- Xurgin eta larrapo herria 4
- Hauxe izan da dena, lagunok 4

Kontaktu:
Gotzon Pérez Artutx
bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:
www.vidangoz.com/bidankozarte/
Facebook
twitter.com/bidankozarte

Onki xin berriz, antiguotarrak!

Nire adina dela eta koloniak txikitan besterik ez ezagutu arren, Antiguoko haur pila hori jolaskide gisa izanda, baziren urte batzuk dagoeneko nire buruan bueltaka nuen hurrengo gaia: pena handia zen Bidankozeko eta Donostiako auzo haren arteko lotura gehiena galdua izatea.

Horrela, eta 2017. urte honetan kolonien azken tandatik 25 urte beteko zirelakoan (gerora talde batzuk 1995raino etorri zirela baieztatu genuen), kontu hau guztia Nandori aurkeztea bururatu zitzaidan, ziur aski, Antiguorekin geratzen zaigun loturarik sendoena baita… Eta bistan dago bete-betean asmatu nuela, bestela, begira ezazue antolatu dena...

Esanak esan, izan zaitezte onki xinak eta goza ezazue topaketa honetaz. Espero dezagun azkena ez izatea eta, bide nabar, ea galdu behar ez genituen lotura horiek sendotzeko balio duen.

Fuertes etxea 1992an

Kolonien aztarna Bidankozen

1973tik 1995era udako hilabeteetan zehar gure herria Donostiako Antigua auzoko haurrek *inbaditua* zen.

Koloniek haien antolaketa eta ekitaldiak zituzten baina, horretaz aparte, herriko batzuekin harremana egiteko aukera bazegoen, nork zegokionarekin: haurrek Bidankozeko txikienekin, monitoreek herriko gazteekin bereziki eta sukaldariek eta kolonietako gainerako antolatzaileek, ba behar zenarekin.

Dagoeneko koloniak Bidankozera etortzeari utzi ziotenetik hogei urte baino gehiago igaro dira eta, hala ere, herrian haien oroimen hutsa baino zerbait gehiago geratzen da.

Hasteko, kolonien istoriorik gabe ulertuko ez ziren herriko bi etxeen historia badugu (kolonietako etxeez gain, antzinean *Fuertes* etxea eta gaur egun *Azkue* etxea): *Peña* etxea, izena Juan Peña donostiarrari (Maria Luisa Aldazabal sukaldari ibili zenaren senarra) zor diona, eta *Txikiborda*, hainbat urtez monitorea izandako Nandorena.

Fermina, kolonietako lehenengo txandek ezagutuko zuen moduan

Bestalde, 96 urteko Fermina [*Maisterra*] badugu, etxea Antiguako *San Sebastian Martir* parrokiakoa izan zen bitartean herrian zegoen bere ordezkari eta *Fuertes* etxeko zaindari ibili zena, eta koloniekin izandako harremana pozez eta asetasunez oroitzen duena.

Eta etxeez eta pertsonez gain, hor daudenak, nork bere oroitzapen eta bizipenak baditu: bazkaltzera edo afaltzera deitzen zuen zintzarriaren doinua, plazan jokatutako '*puntero*' (*barrene*) amaitezin horiek, poliziak eta lapurrakean jolastea 25 lagun beste 25en aurka, '*Vosotros, los del pueblo, ¿por qué no dejáis de tirar pericas pequeñas* [kaskabillos]?' edo '*¿Vais a venir a la merienda?*' bezalako esaldiak, eta abar...

Azken finean, koloniek Bidankozen utzitako aztarna bizirik badirau.

1973: Kolonietako lehenengo txandetako bat

Koloniak zenbakitan

Lehenengo urteetan zehar, Bidankozera uda bakoitzean kolonietako lau txanda etortzen ziren (erdarazko bi, euskarazko bat eta elebidun bat), urteak pasata hiru izatera pasatu zen eta, azken urteetan, bi talde besterik ez.

Horrela, 1973 eta 1995 bitartean *Fuertes* etxetik kolonietako 90 txanda igaro ziren, guztira 4000 haur inguru, eta kontuan izaten badugu haietako batzuk errepikatu zutela Bidankozera etortzeko hiru urte gehienez, gure herritik Antiguako 2500 neska-mutil pasatu zirela esan ahalko genuke. Kontuan izanda auzo donostiar honek gaur egun (2014ko datuak) 0-15 urte bitarteko 1500 haur badituela, eta kontuan izanda ziur aski 1970eko eta 1980ko hamarkadetan haur gehiago egongo zirela (demagun bikoitza), erraz ondoriozta dezakegu garai batean Bidankozetik pasatu ziren 2500 haur horiek ia Antiguan zeuden guztiak izango zirela, edo horrela ez bada, ia guztiak.

Txanda bakoitzean 40 neska-mutil zegoen, baite zortzi monitore eta hiru sukaldari ere, beraz, nahiz eta askoz neurri txikiago batean izan, koloniak martxan egon ziren 23 denboraldietan monitore eta sukaldari talde handia ere pasatu zela ikus dezakegu.

Zenbaki hauek guztiak dinamika honek Antiguako bizitzan bereziki izan zuen inpaktuaren erakusle dira, baina, beste neurri batean izan arren, Bidankozeko udako giroan ere.

Horrela hasi zen dena

Koloniak Bidankozera etortzen nola hasi ziren herrikook ez genekien zerbait bazen ere, badirudi hainbat antiguotarrentzat kontu ezezaguna badela ere. Hori dela eta, oraingo honetan dagokion azalpena ematen saiatuko gara.

1970eko hamarkadaren hasieran frankismoko azken urteak bizi ziren krisi sakon giroan murgilduta. Testuinguru honetan, Donostiako Antigua auzoko *San Sebastian Martir* parrokiak '*Vivancoren alarguna*'k emandako dirua jaso zuen, eta kopuru horrekin eta garaiko parroko Don Jose Luis Moraza Montoyaren iniziatibaz (gaur egun 92 urte dituena) helburu soziala zuen helburu batera bideratzea erabaki zuten: auzoko haurrei udako egun batzuk haien eguneroko bizitzatik urrun zegoen herri batera joateko aukera eman, giroz aldatzeko.

Parrokiako bikote batzuk (badakigu gutxienez Aurori eta Fernando Fernandez, Trini eta Josetxo, Maite eta Juantxo Neira, Mª Luisa eta Almandoz, Rita eta Ezequiel Seminario eta Juani eta Alejandro bazeudela) lanari ekin zioten, lehenengo toki egoki bat aurkitzeko (kontuan hartu behar dugu garai hartan ez zegoela higiezinen agentzia asko, are gutxiago internet) eta, beranduago, etxea egokitzeko kolonietako neskamutilak eta expedizio bakoitzean joango ziren gainerako helduei aterpea eman ahal izateko.

Oraindik ez dakigu Bidankozeko etxearekin nola egin zuten topo (kontuan hartu 175 km daudela tarteko, eta garai hartan autobiderik gabe), *Fuertes* etxea, beharbada egunkariko iragarki batengatik edo. Etxea erosteko ordaindu zen kopurua 96000 pezetetakoa izan zen [*Gidari* aldizkaria nº 327, 1973ko apirila].



Fuertes etxeko egokitze lanak 1973. urtean [Argazki: *Gidari* aldizkaria, 327. zbk, 1973ko apirila]

Nola edo hala, behar ziren zaharberritze lanak egin ziren eta 1973ko uztailaren 1.rako *Fuertes* etxea kolonietako lehenengo txanda jasotzeko prest zegoen, hurrengo 22 urteetan Antiguako neska-mutilez osatutako hainbat txandekin gertatuko zen era berean.

Etxearen erabilera, gainera, ez zegoen udako kolonietara mugatuta, eta auzoko lagun guztiei eskaintzen zen, atsedenaldiko egun batzuk pasatzeko, elkarbizitzetarako, eskiatzera joateko, eta abar...

Nola edo hala, ziur nago 1973an koloniak martxan jarri zuten haietako inork ez zuen imajinatu ere egiten hurrengo hamarkadetan proiektu horrek izango zuen eragina.

Antiguotarren talde bat Bidankozera iristen motxilak soinean 1970eko hamarkadaren amaieran

Bidankoze izeneko toki mitologiko hori

Kolonietako txanda bat *balsa*n bainatzen

Kolonien amaieraren ondorengo urteetan, bertatik pasatutakoak Bidankozeko egonaldiak nola oroitzen zuten entzuteko aukera izan dut, gehienetan pozez eta maitasunez, eta batzuetan idealizazio eta guzti, gure herria *Arkadia* hiri mitologiko horren parean jarriz, zoriona, xumetasun eta bakea nagusi ziren tokia.

Horrela, Kepa lagunak bildu dituen (beste kontu askoren artean) anekdota guztiek badute kutsu alai eta dibertigarri hori oroitzen edo entzuten dituenari irribarrea ateratzen diona. Goazen, bada, haietako aukeraketa txiki batekin:

Behin koloniak martxan jarrita, haietan parte hartzea zen haur askoren urte osoko ametsa. Kasu berezi batzuetan, Bidankozera joateko gogoak batzuen haurtzaroko beldurrak garaitzen lagundu zuen. Adibidez, bazegoen gure herrira etortzeko gogo handia zuen mutiko bat, baina etxean ez zioten etortzen utzi nahi gauez, batzuetan, oraindik ohean pixa egiten zuelako. Bada, amari pixa egingo ez zuela mila aldiz hitzeman ondoren, txiki hori azkenean kolonietara joan zen, ez zuen *isurketarik* izan eta Bidankozen bere haurtzaroko oroitzapenik onenak baditu.

Bidankozeko koloniek kontuak Antiguako haurren irudimena xurgatzen zuen, eta honetako beste adibide bat jarraian aurkezten da. Lehenengo urte haietan, parte hartzeko nahitaezko betebeharra tifus eta tetanoseko txertoak jarrita izatea zen. Eta horrela, haur haietako bati, orratzen izu-ikara zenari, txertoa jartzera eraman zuten… eta ziztadaz libratzeko, amaren deskuidu batean ospa egin, eta korrika egiteari ez zion utzi etxera iritsi arte. Zorionez berarentzat, bere amak ez zion zigortu, beste egunen batean txertoak jartzera eraman zion eta Bidankozen gozatzeko aukera izan zuen azkenean.

Behin herrian, eta legendazko pertsonaiak balira bezala, dendara bisita nahitaezkoa zen, Angelesena [*Jose Maria*] lehenengo txandetan, eta gerora Rafaela eta Luisena [*Lixalte*] eta Abelinarena [*Danielna*], ondoren Blankak kudeatuko zuena. Telefonoz deitzeko edo deiak jasotzeko *Santxena* etxera jaitsi behar zen, eta hor Maria Kruzek esango zien zenbat '*pausu*' ordaindu behar zituzten. Eta Don Nikolas apeza zegoen ere, bere etxetik jaistean, plazarako bidean, *Arriola* etxea pasatu berria gelditzen zen kolonietako sukaldeen parean eta ea jateko zer zegoen galdetzen zuena (diotenez, albondigak zituen janari gogokoen).

Eta zer esan *eskallu*en (herrian *txipak* deitzen dituguna) arrantzaz, *Binies* ugaltxa haurren jolastoki bihurtzen zuena, jantokian batzuei gustuko ez zituzten janariak, burko-gerrak, inor-gutxi lokartuko ez zen lokuluxka haiek, nesken logelan mutikoek egiten zituzten sartu-irtenak, flexioak egiteko beharra euskarazko txanda batean gaztelaniaz aritzen zenean, baltsan edo pozan [*Ziberria*n] (garaia eta txandaren arabera) bainu saio amaitezinak… eta inoiz amaituko ez genukeen abar luze bat kolonien egonaldietako topikoen inguruan…

Kolonietan egon den edonork hauek bezalako istorio pila izango du kontatzeko, eta kasu gehienetan (guztietan ez bada) anekdota dibertigarriak izango dira. Beraz, beharbada Bidankozek bere ospea baieztatu eta bere bisitariak sorgintzen ditu…

Txanda batek egun bat gehiago iraun zuenekoa

1979ko abuztuaren 13a igandea zen eta Bidankozen *Erronkariko Ibaxaren Eguna* ospatu zen. Horregatik herrian hainbat ekitaldi prestatu ziren.

Igande hori, kasualidadez, kolonien egonaldiko azken eguna zen, eta haien txanda amaitzen zuten taldeak egun horretan bertan Antiguara itzultzekoak ziren. Ospakizunak ekarritako jendetzak eta antolatutako ekintzek egun horretako itzulera zailduko zutelakoan, kolonietako arduradunek igande hori Bidankozen pasatzea erabaki zuten.

Baina bestalde, Donostirako itzulera egun bat atzeratzeak gorabehera handia sortu zuen antolaketari dagokionez. Garai hartan sakelekorik ez zegoela hartu behar dugu kontuan, eta komunikazioa ez zen batere erreza. Neska-mutilen gurasoetako batekin harremanetan jarri ziren eta egun bateko atzerapenaren zergatia azaldu, egun horretan egon behar zen iristera bertan behera utziz. Jose Mari Lopetegi *mitikoa* ere kontaktatu behar izan zuten, Lopetegiko autobusen jabe eta gidari baitzen, Bidankozera haurren bila ez joateko astelehenerainо, abuztuak 14.

Ospakizuna arrakasta hutsa izan zen eta koloniak eskupeko egun batekin itzuli ziren Antiguara Bidankozetik.

Xurgin eta larrapo herria

Kolonietako txanda bat *Santxenako atean*, *Lopeteguiko* autobus mitiko horietako baten aurrean

Bidankozek xurginen herria izateko ospea du eta, izan ere, herrikooi '*xurgin*' ezizena ematen digute. Honekin lotuta, arduradun batek kolonietako haurrei jarraian doan istorioa kontatu zien, bidankoztarrok ezagutzen dugun herriko legenda baten moldaketa bat eginez:

Garai hartan Bidankozen atso bat bizi zen, herrikoekin harreman handirik egiten ez zuena. Jarrera misteriotsua eta begirada sakona zuen. Etengabe ukendu eta edabeak prestatzen bazebilen, eta ohikoa zen herritik tarte motzez desagertzea, egun pare batez edo.

Kontatutakoak zioenez, mendizale batzuk inguru hauetan mendi-martxan bazeuden, bidea galdu eta Bidankozeko mendietan galdu egin ziren. Ekaitz bortitz batek ezustean hasi eta gaua berehala harrapatu zien. Nekatuta eta nora ezean, zeuden tokitik urrunegi ez zegoen argitxo bat ikusi zuten.

Leher eginda, behin toki hartara iritsita haitz batek aterpe eman zien, baina hor ez zen inor ikusten. Oihuka hasi ziren haien presentziaz ohartarazteko, baina inork ez zuen erantzun. Bapatean, inondik eta magia kontua balitz bezala, oilo bat agertu eta haien aurrean ibiltzen hasi zen.

Oso gose zirenez, hegaztia harrapatzeko eta jateko pentsamendu bakarra bazuten. Behin baino gehiagotan saiatu ondoren, mendizaleetako batek lortu zuen azkenean harrapatzen eta lepoa bihurritzen hasi zitzaion hiltzeko asmoz. Orduan, oiloak emakume ahotsarekin oihuka hasi eta mendizalearen harridura aprobetxatuz, korrika ihesi zuen.

Hurrengo goizean hasieran aipatutako Bidankozeko atsoa lepoan zapi bat zeraman, inork ez zekien zer motako minarekin.

Istorio hau entzun ondoren koloniako haurrak nola geratu ziren irudika dezakegu. Kontua da egun batzuk beranduago, haietako neska-mutil batzuk herritik aske ibilita, batek baloi bakarti bat aurkitu zuen, honen aurrean auto bat eta bere gainean oilo bat. Mutikoak baloiari ostiko eman eta, punteria onez, oiloa bete-betean jo zuen, luma, kokoriko eta irribarre leherketa ondorio gisa emanez... baina orduan beste txiki bati beharbada hurrengo egunean Bidankozeko atsoren bat igeltsatua agertuko zela komentatzea bururatu zitzaion. Orduan, ixiltasuna bihurtu zen nagusi.

Kolonietako haurrak haiek *La Poza* (*Ziberria*) deitzen zuten tokian bainua hartzen

Amaitzeko, xurginekin lotzen ohi den animalietako bat larrapoa (apoa) da, eta koloniak gure herrira etortzen ziren garaian oraindik nahiko erreza zen ekaitz-egunetan hainbat karrikatan ikustea. Erreza zen baita larrapo gaixoak haurrek harrapatuak izatea, noski, inolako helburu hezigarriekin. Kolonietako haurrak ez ziren salbuespena, eta larrapoak harrapatzean neskak izutzeko erabiltzen zituzten eta, batzuetan, monitoreak eta guzti, hauetako bat izuaz ia zoratu arte. Istorio horretako larrapo gaixoa, *sapito Etxeberria* delakoa, behintzat agur duina izan zuen, herritik prozesio bat eskaini baizioten.



UN DIA EN LAS COLONIAS

Nos levantamos a las ocho y media, hacemos un poco de gimnasia o de deporte y enseguida vamos a desayunar. Después, arreglamos un poco las habitaciones y ¡al monte! A la vuelta nos sentará muy bien un baño en el río.

Como se nos habrá abierto el apetito, las cocineras ya tendrán preparada una estupenda comida, tras la cual iremos a descansar un rato para poder jugar mucho y hacer trabajos manuales.

¡Ah! Una cosa que no falta, son las canciones. Nosotros cantamos mucho, para estar siempre contentos.

Por la noche, después de cenar solemos hablar sobre el modo de mejorar las cosas y hacernos más amigos. Tal vez a la luz del fuego del campamento o al recuerdo de la fiesta de la colonia.

Así pasamos más o menos el día. Si quieres disfrutar en las colonias de Vidangoz unos días....

¡VEN CON NOSOTROS!

BIDANGOTZE'KO

Parrokiaren Koloni-etxea

ANTIGUA'KO PARROKIA

COLONIA

Colonias de VIDANGOZ

PARROQUIA DEL ANTIGUO

1986ko kolonietako promozio-folletoa

Hauxe izan da dena, lagunok

Beno, zenbaki berezi hau *herrikoon* zein *kolonietakoen* gustukoa izatea espero dut, baita ekainaren 24ko ospakizuna arrakasta hutsa izatea eta denok pozik geratzea ere. Eta bukatzeko, nahi bat: *Casablanca* filmearen amaieran zioten bezala, ea '*oraingo hau adiskidetasun polit baten hasiera*' den eta ez dugu beste 22 urte itxaron behar berriz elkartzeko.

Laguntzaile: AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE VIDANGOZ · BIDANKOZEKO AIZA BULGUA